

Euskal kulturari unibertsitateko leihoa Deustun zabaltzen: EKM

Dra. Rosa Miren Pagola

Universidad de Deusto-Deustuko Unibertsitatea

Laburpena

Euskal kulturari unibertsitateko leihoa Deustutik zabaltzen: EKM (Euskal Kultur Mintegia)

Aurtengo ikasturtean berrogeita bost urte betetzen dira (1968-2013) Deustuko Unibertsitateko ikasle talde batek, barruko irakasleren baten laguntzarekin, unibertsitatean euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimendu bat behar zela eta, Euskal Kultur Mintegia (EKM) sortu zuela. Mintegi horren arrakasta handia izan zen eta emaitza ugariak izan zituen bere ibilbidean. Sypmosium honetan erdi itzalean gelditu izan den mugimendu horren berri eman nahi da.

Hitz gakoak: Euskal, kultura, Deustuko Unibertsitatea

Resumen

Abriendo una ventana a la cultura vasca desde Deusto: EKM (Seminario de cultura vasca).

Se cumplen 45 años de la fundación de Euskal Kultur Mintegia (EKM) en la Universidad de Deusto. Una iniciativa de alumnos apoyada por algunos profesores. El EKM desarrolló con éxito actividades en favor del desarrollo del euskera y la cultura vasca en un tiempo en el carecía de reconocimiento académico. Se ofrece una visión general de la evolución de esta asociación cultural y académica.

Palabras clave: Cultura, vasca, Universidad de Deusto.

Abstract

Opening a window on Basque culture from Deusto: EKM (Seminar of Basque Culture)

Forty-five years have passed since the foundation of Euskal Kultur Mintegia (EKM - Seminar of Basque Culture) at the University of Deusto. This was an initiative by students supported by some professors. The EKM successfully carried out activities in favor of the development of Euskara and Basque culture at a time when they lacked academic recognition. We provide a general view of the evolution of this cultural and academic association.

Key words: Basque culture, University of Deusto.

1. Sarrera

Urteak pasa ahala, ohartzuz joan nintzen Deustuko Unibertsitatean ez zela ezer idatzirik gelditzen garai batean euskararen eta euskal kulturaren inguruan hain garrantzitsua izan zen ikasle unibertsitarioen mugimenduaz. Inor ez zebilen, bestalde, gero eta murrizagoak ziren lekukoak testigantzak batzen ere. Izan ere, dagoeneko 125 urte dituen Deustuko Unibertsitatearen historia, era batera edo bestera, behin baino gehiagotan bildu da eta argitaratu ere egin da, baina mugida hori ez da inon aipatzen¹. Hutsune hori bete nahiz edo, duela urtebete hasi nintzen ahozko testigantza batzuk biltzen. Ekintza hartan sortzaile eta partaide izan ziren zenbait lekukorekin elkartu nintzen oraindik gordetzen dituzten oroitzapenak jasotzeko². Aldi berean, artxiboetan gelditzen diren dokumentu apurrak begiratzin ere hasi nintzen³.

Horretan nembilerarik, Eusko Ikaskuntzak antolatutako Bilbo-XVI Sypmposiumaren gaiak, "Politikagintza Bilbon: Antolaketa, alderdiak, eragileen kultura politikoak eta esperientziak", aukera ezin hobea eskaintzen zidan mugimendu horrek eman zituen fruituak lehen hurbilpen gisa aurkezteko. Bide batez, hartan partaide izan zirenen izenak ere aipatu dira. Gainera, denborarekin, haietako batzuek euskal gizaratean jende ezagun eta entzutetsu gertatu direnak.

2. Lehen urratsak

Berrogeita hamarreko gazteen belaunaldia hasi zen euskararen eta euskal kulturaren gerrate ondorengo jazargoaren kontzientzia mina hartzen Euskal Herriko hegoaldean. Ordura arte isiltasuna izan zen nagusi. Hamarkada horretako erdialdera, han-hemen -erlijiosoan seminarioetan bereziki- pizten hasi ziren euskararen aldeko gogo bizia eta lanean ekiteko jarrera eragilea. Hortik giro berri bat zabalduz joan zen nahiko arin jende arduratsuen artean, eta, 60ko hamarkadan, euskal kultura inposaturiko lozorrotik ernatuz joan zen. Euskaraz aldizkari berriak sortu ziren; euskal idazle berriek literatur mundua astindu zuten; euskal literaturaren historia bi argitaratu ziren; herri-musikan, besteak beste, hainbesteko oihartzuna izango zuen Ez dok amairu izenaren pean biltzen diren abeslariak; filmegintzan, Amalur; arte plastikoetan munduan, diziplina guztiak zirkindu zituen Arantzazuko monumentu mirengarria; Euskaltzaindia euskara batuaren bidea jorratzen hasia zen.... Eta abar, aipaturikoak ez baitira izan adibide deigarri bakar batzuk baizik. Izen propioak saihestuz, jakina.

Eta irakaskuntzan, zer? Hegoaldeko lurralde guztietan, elizaren babespean eta apaltasunez bazen ere, unibertsitate aurreko ikasketak euskaraz irakasten ziren ikastoletan eta helduen alfabetatzea ere abian jarri zen. Unibertsitatea, berriz, egoskorragoa zen euskarari onespina emateko. Agian, egiagoa litzateke esatea euskara unibertsitateko ez zela burutik igaro ere egiten. Unibertsitatean euskararen eta euskal kulturaren eremuak ez ziren ezertarako kontutan hartzen. Hala ere, esan bezala, euskararen eta euskal kulturaren inguruko aipatu den uhin horren berri, nonahi zabaldu bazen, areago unibertsitateko ikasleen artean. Giro horretantxe kokatu behar dira hemen batu nahi den EKMren lehen urratsak. Deustuko Unibertsitatean, 1967-1968 ikasturtean, Jesús M^a Díaz de Acebedo SJ erretore zelarik, zenbaiten irriak eta asmoak, ia oihartzu gabe, bat etorri ziren. Irakasle batzuk ere bai, baina, hemen ere, aurrenak zirikatzen, gazteak izan ziren. Ikasle talde bat izan zen agertu zena euskararen alde unibertsitatean ere zerbait egin beharra zegoela pentsatzen eta berekiko erabakitzen. Taldea ez zen handia, hogeiko bat murriz. Kideetarik bi izan ziren taldea mamitzeko eta eman behar ziren pausuak emateko eragile. Batetik, Elixabete Bizkarralegorra, gazteen mugimendua unibertsitatean bultzatu zuena euskal kultura sartzeko eta indartzeko asmoz⁴. Bestetik, Gonzalo Duo, honek ere, bestearen helburu berarekin,

1 Saenz de Santa María, Carmelo: 1978, Historia de la Universidad de Deusto, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao. Zenbait Egile: 1995, Sapiencia Melior Auro. Una visión histórica y descriptiva de la Universidad de Deusto, Universidad de Deusto, Bilbao., Cava, M^a Jesús, Leonardo, Jon: 2011, La Universidad de Deusto entre dos siglos: (1986-2011), Universidad de Deusto.

2 Zenbaitekin mintzatu naiz, baina luzexago elkarrizketatuak aipatu nahi nituzke: bereziki Xabier Arzalluz, Elixabete Bizkarralegorra eta Gonzalo Duo, eman dizkidaten argitasun eta xehetasun guztiengatik; baita Patxi Goenaga ere. Eurentzat, eta guztientzat, egin didaten harrera onagatik eta erantzuten eta ideiak jasotzen ipini duten interesagatik nire esker ona.

3 Dokumentazio hori Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko Euskaldok deitutako dokumentazio zentroan dago. Beste zerbait baita Unibertsitateko Artxibo Orokorrean ere. Eskerrak, jarraiberean, bietako begirale Karmele Santa María eta Encarni Garcíari.

4 Aipatu behar da EAJ-PNV alderdiaren Bizkaiaiko gazteen mugimendua, EGI, Eusko Ikasle Alkartasuna (EIA) sindikatuan sartua zegoena, eta unibertsitatean elkartu zen taldea hasi zen unibertsitate euskaldundu eta euskal kultura unibertsitateko eramateko ideia garatzen eta martxan jartzen. Ikus nola kontatzen duen Elixabete Bizkarralegorrak berak: "A la sombra del PNV y del Eusko Ikasle Alkartasuna (EIA) –Kepa Sodupe, Economista de Sarriko quien se relacionaba con el BBB- creamos una pequeña estructura en la Universidad de Deusto, con Ibon Maidagan y Elbo –Elixabete Bizkarralegorra–, así como en la Facultad de Económicas de Sarriko –Iñaki Etxebarria Alegria–, en la Escuela de Ingenieros de Bilbao –Iñaki Zarragoa Zabala, e Iñaki Oiarzabal (GB, accidente de coche) –, Josu Bravo Azkuenaga en la Escuela de Peritos de Ingenieros y en la Escuela de Náutica, ubicada entonces en el actual IES de Deusto junto al puente, Juan Mari Uribealago, de Gasteiz, porque teníamos gente de EGI estudiando en dichos centros".

moldeak berritu eta euskal kultura unibertsitateko maila zientifikoan lantzea nahi zuen, haren inguruan jarraitzen zuten estereotipo folklorikoak saihestu eta korrante europarretan sartzea zuelarik burutan⁵.

Ikasleen nahi haiek babes egokia aurkitu zuten Xabier Arzalluz irakaslearengan eta hau izan zuten laguntzaile handia. Lau urte Alemanian egin ondoren, Deustura irakasle etorri berria zen, eta, abertzale eta euskaltzale zolia izanik, itzuli aurretik ere bazuen unibertsitatean euskararekin zer bait egin beharraren kezka. Orduan jesuita zen eta, Lucas Verdúrekin batera, Zuzenbide Politikoa irakasten zuen. Euskarari buruz egin zen plana, lerro loditan ezinbestez pentsatua, fakultate horretatik, Zuzenbidekotik, alegia, hastekoa izan zen, eta gero beste fakultateetara zabalduz joan zedin eta, horrela, unibertsitate osoa hartuko zukeen euskal kulturari buruzko mintegi bat sortu. Bere, Arzalluzen, itxaropen eta desioa ez zen hainbestean gelditzen. Ondorengo pausua izan zitekeen ideia bera unibertsitate publikora ere eraman eta han ere, fakultatez fakultate, zabaldu eta ezarri.

Ikasleak ere ezagunak zituenez, bat etorri zen haiekin berehala, eta hasi zen lehenengo pausuk ematen. Zuzenbideko dekanoa A. Obieta SJ zen eta ezer agertzen ez bazuen ere, Xabierrek, berak dioenez, bazekien hark zer pentsatzen zuen gai horietaz, baita euskaltzale eta abertzale zirela bera eta familiakoak ere. Harengana jo zuen euskarari zegokionez zer bait egin beharraren kezka aditzera emanez eta horretarako zuen borondatea ere agertuz. Harengandik aurrera egiteko jaso zuen erantzuna garbia izan omen zen: Aurrera egitekoa, eta norbait kexu bazen, berak bazekiela non zegoen, eta horren erantzukizuna berea zela. Haren onespena jaso ondoren, aitzinerat egin zuen Arzalluzek egitasmoarekin. Aurrena, ikasle taldeari toki bat aurkitu izan zezan non bildu; eta, gero, elkarrekin ideiarik gorpuztatu ematen saiatu. Hasiera hartan, Andrés de Mañaricuaren irakasle laguntzaile bezala ari zen Goio Monrealen laguntza ere izan zuten.

3. Erakundearen sorrera, helburuak, funtzionamendua

Apalki hasi zen arren, lehen urratsak ongi eginak eta ziurrak izan ziren. Izan ere, ez ziren alferrik zuzenbideko fakultatekoak ikasle batzuk, irakaslea barne. Izen bat eman behar zitzaion taldeari eta, horrekin loturik, zein figura juridikorenean jartzea komeniko zen aztertu egin behar zen, garaiko egoera kontutan hartuz. Hasieran, 191/1964ko Elkartearen Legeari atxikiz, "Asociación de Cultura Vasca" izenean pentsatu zuten. Baina, gero, zuhurrago iruditu zitzairen eta, bide batez, unibertsitarioago ere bai, esanahi irekiagoko hitzen bat hautatzea izenatarako, eta egokituz jo zuten "Seminario de Cultura Vasca", eta horrekin gelditu zen. Ez dago oroitzat zehatzik Euskal Kultur Mintegia izena noiztik hasi zitzaion ematen, gero siglaz hain ezaguna izan dena, EKM, alegia. Dirudienez, lehenengo ikasturtean ez zitzaion euskal izenik eman, konfiantza faltaz behar bada; ala, berriro ere, garaia, egoera eta lekua kontutan izanik, tentuz jokatzearren. Edonola ere, esan daiteke, horrenbestez, Deustuko Unibertsitatean ikasleen elkarte bat sortua zela euskal kulturaren alde lan egiteko⁶.

Helburuak ere hasieratik finkatu zituzten, denek garbi eta batera ikusten baitzuten nondik norakoa. Lehenengoa eta orokorra, euskara eta euskal kultura zabaltzeko ikasleen erakunde bat sortzea. Eta hori, euskal giroa eta zaletasuna unibertsitatean agertu eta zabaltzeko, eta euskal kultura ikasketetan, unibertsitateari dagokion mailan, sartzea lortzeko, hauek izan ziren xede nagusiak. Edonola ere, denboraren iraganean, eta gauzak, bai gizartean nola unibertsitatean ere, aldatzear agertu zirenean, garbi izan zuten hurrengo taldeek, Euskal Kultur Mintegiak betetzen zituen eginkizunak Deustuko Unibertsitateak bere gain hartuko zituen einean, EKM desagertuko zela.

Ofizialtasuna, edo horren gisako zer bait, ez zen bat-batean lortu, lehenengo ikasturtetik erdietsi nahi bazen ere. Izan ere, unibertsitate mundua aztoratua zebilen urte haietan, eta ofizialtasunaren afera astiroago hartzea erabaki zen⁷. Hirugarren ikasturtean (1969-70), Ferrer Pi SJ erretoreak egitasmoarekin adostasuna agertu zuen eta ahozko errekonozimendua eta babesa eskaini zizkion. Horrekin batera, EKMren jarduera egokirako hiru gela berri ipini zituen taldearen esku:

5 Duok berak dioenez, Goethe, Balzac, Proust, Joyce, Kafka, "Nouveau roman" frantsesa eta, batez ere, Barthes irakurritz ohartu omen zen euskal kulturak azterketa eguneratuago bat behar zuela. Hona bere hitzak: "Todo esto parece que tiene poco que ver con la creación de EKM, pero no es así. Esta "filosofía" se inscribió en el sentido revisionista de la cultura heredada, sin rechazar su valor patrimonial, pero poniéndola en juego con la de nuestro tiempo en Europa. Por ejemplo, yo era y soy entusiasta de las evocaciones de F. De Arceche, pero reconocía que su tiempo había pasado por completo. Literalmente, nos desentendíamos de los aspectos más estáticos y "jatorrak" de lo vasco y tratábamos de valorar desde criterios culturales y dinámicos y vanguardistas". Gonzalo Duok idatzitako eta argitaratu gabeko testutik jasoa (2012ko ekainean).

6 EKMren inguruan eta haren iduriz, gero, beste unibertsitate publikoan, helburu berdinekin, EKT deitzen ziren euskal kultur taldeak sortu ziren.

7 Ezin daiteke ahantzi 'Maiatz frantzesaren' garaia zela eta Deustuko Unibertsitatean ere garai hura, ikasleen aldetik, oso mugitua eta errebeindikatiboa izan zen.

administraziorako, batzarretarako eta euskaraz ikasteko eskoletarako, hiruak altzari berriz hornituak. Finantzazioa ere agindu zien ikasturtez ikasturterako erretoretzatik. Oinarrizko finantzaketa horrek hurrengo urteetan eta bukaera arte iraun zuen. Horrez gain, Unibertsitatea beti egon zen adi Mintegiak zituen beharrei erantzuteko: nahiz ekintza desberdinak antolatzen lagunduz, nahiz beharrezko irizten ziren eskariei erantzunez, nahiz gelan eta egunean eguneko behar materialak ere betez. Labur esanda, denbora gutxian Unibertsitatean integratu zen mintegi estatus eta funtzionamenduarekin. Horren lekuko da, esaterako, Unibertsitateak ikasleentzat antolatzen zituen ekintzen programan EKM ere sartzen zuela⁸.

Xabier Arzalluzek nahi izan zuen hasieratik estatutu batzuk eduki mintegiaren eraketarako eta inork ez zezan aukerarik izan mintegiaz zernahi bere kasa egiten hasteko. Prestatu zituen, beraz, eta onartuak izan ziren. Horrekin batera, mintegiko egitekoak eta abar planifikatu eta banandu ziren.

Mintegiak Zuzendaritza batzordea zuen, idazkaria, diruzaina, lan batzordeak eta bazkideak. Harreman instituzionaletarako, estatutuek espresuki jasotzen ez bazuten ere, jesuita edo irakasle bat hartzen zen ararteko bezala. Hasieran Xabier Arzalluz, gero, baina aski jarraian, Patxi Goenaga, Luzio Agirre, baita Alfonso Irigoien ere agertzen da⁹. Lehen bizpahiru urtetako gastuak finantzatzeko, hasieran ez baitzuten laguntza instituzionalik, bazkideen kuotak eta euskarazko eskolak baliatzen ziren. Bazkide bakoitzak 10 pezeta ordaintzen zuten hilabetero eta euskarazko ikasle bakoitzak 25 hilabetero. Bizkaiko Aurrezki Kutxak beti lagundu zituen antolatzen ziren ekintzak, kartelak eta programak ateratzeko eta horrela-koetarako. Bazkideek batzen zuten papera salduz ere dirutxo bat lortzen zen¹⁰. Diru beharrez baten, noski, bulegoko material txikiez hornitzeko, eguneroko martxan sortu ohi diren gastutarako, euskarazko irakasleei ordaintzeko, liburuak erosteko, aldizkaritara harpidetzeko, eta beste hainbat gauzetarako ere. Logo propio bat ere egin zuten “Asmoz eta Jakitez” lema pean, eta egiten zen publizitatean sartzen zuten.

Kideen arteko aurrenengo batzarrak Unibertsitateko ‘Ikasgela Nagusian’ izaten ziren. Baina, esan den bezala, Arzalluzek laster leku bat lortu zuen Kapera Gotikoaren alboan. Eta gero aldaketaren bat gertatu bazen ere, hasierako lekuan jarraitu zuten luzaro, leku apaina baitzen. Zuzendaritza batzordeak bazuen bere bulegoa bilerak egiteko; liburutegirako beste areto bat zuten; eta batzar handietarako eta eskolak emateko ere espazio propioa zuten, nahiz eta eskolak –ikasle kopurua urtetik urtera handiagoa zenez– beste ikasgela batzuetara aldatu behar izan ziren.

Liburutegia aipatu da. Izan ere, euskaraz nahiz euskal gaiet buruz erdaraz ere idatzitako liburutegi bat behar-beharrezko zela garbi zuten hasieratik. Gonzalo Duo, bestalde, guztiz sumindua zebilen berak maiz erabiltzen zuten Deustches Bibliothek deitua bazuelako Unibertsitateak, eta euskal kulturari, aldiz, metro bat ere eskaintzen ez ziolako. Halere, bere denbora hartu zuen egitasmo hori formalki burutzeak.

Liburutegia eratzeke eredu desberdinak erabili zituzten. Batetik, Elixabete Bizkarralegorrek, aditzera eman zidanez, Kennedy liburutegia ezagutzen zuen eta haren ereduak aplikatu nahi izan zuen, eta, hein batean, lortu zuen. Duok, bere aldetik, liburutegi orokorretik kanpo zegoen Deustches Bibliothek deitua zuen gogoko. Bataren eta bestearen ideiak uztartuz eta Xabier Arzalluzenak bide beretik zihoazenez, liburutegia martxan jarri zen. Leheneko bolumenak Xabierrek berak zituenak izan ziren: Kulixka Sorta, Auñamendi bildumakoak, Noni eta Mani eta gisa horretakoak, Onaindiaren Mila euskal Olerki ere, besteak beste. G. Duo ere eraman zuen liburu sailtxo bat. Hortik aurrera, dohaintza batzuez gain, erosi zirenekin batez ere, eta harpidetza bidez iristen ziren aldizkarietara joan zen hornitzen, aski arin bihurtu zelarik itxura bateko liburutegia. Eta hauxe, euskaraz idatzitako eta euskal kulturari buruzko liburuz osatu zena, izan zen gero Unibertsitateko Euskal Liburutegia deitu zenaren ernamuina¹¹. EKMtik zorrotz eraman zuten beren liburutegiko antolaketa. Liburuak bertan irakur zitezkeen eta mailegatzeko aukera ere bazen. Mailegurako, gainerako liburutegi

8 1985eko foiletan, esaterako, horrela biltzen zen: “E.K.M. zatoz berehala!!! (Euskal Kultura Mintegia. Euskal Unibertsitarien txokoa. Helburua: mintegiak, ikerlanak, mahai inguruak, kultur saioak, hitzaldiak, kantariak, antzerkiak, kalegira, zinea, eta habar (sic). Euskara fakultate guztietara zabaltzea, euskal giroa sortu. Organiza. E.K.M.”

9 Hona, hitzaldi bat antolatzeko Hitzaldi Aretoa eskatu zeneko eskaria: “Alfonso Irigoien, representante del Rector en el EKM, solicita...” (Datarik gabekoa).

10 Oraindik gogoratzen da E. Bizkarralegorra, urteetan diruzain zorrotza izan zena (1967-1972), nola Ignazio Linaza botikariak, Concha kalean zuen lonja batetan, uzten ziren batzen zuten papera saldu arte gordetzen.

11 EKMko liburutegiak eman zuen Deustuko Unibertsitateko Euskal Liburutegia sortzeko ideia, eta, nolabait, bidea zabaldu ere egin zuen. Bestalde, EKMko liburuak hara eraman ziren. Izan ere, 1974. urtean sortu zen Departamento de Estudios Vizcaínos deitu zena, eta harekin batera jaio zen Euskal Liburutegia Andres de Mañaricua-ren zuzendaritzapean. Euskal Liburutegia-ri buruz gehiago jakin nahi izanez gero, ikus: M. C. Santa María García: 1992, “Biblioteca del Instituto de Estudios Vascos de la Universidad de Deusto”, Sancho el Sabio 2, 345-352. or.

publikoetan bezala, bazkide bakoitzak bere txartela zuen, zeinetan ateratzen zituen liburuen kontrola eramaten zen.

4. Ekitaldiak

Goian esan den bezala, ekitaldiak antolatzeke kideen arteko komisioak zeuden, komisio bakoitza bere egiteko konkre-tuarekin, eta gainera baziren kide denei zegozkien eginkizun orokorrak¹². Dokumentatzen direnetatik, komisio bat komunikazioarekin lotzen zen, propagandakoa deitzen zuten eurek¹³. Beste bat 'Jai-aldi' izenekoa, musikaldiak anto-latzeko, jendea kontratatzeke eta behar ziren baimenak lortzeko. Edonola ere, taldeak aldatu edo beste kide batzuekin osa zitezkeen, beti ere antolatu nahi zen ekitaldi motaren arabera.

Ia hasieratik hagitz bariatuak eta maila ezberdinetako ekitaldiak antolatzen zituzten. Orokorki hartuta, bi ekitaldi mota egin daitezke: kulturalak eta errebindikaziokoak. Lehenengoan, sartuko lirateke: euskarazko eskolak; euskara finkatzeko eta euskal giroan murgiltzeko eratzen ziren baserrietako egonaldiak; mendira irteerak; hitzaldiak eta mahai-inguruak; kantaldiak; boletinen sorketa eta zabalkuntza: Bixikera, Sua, Saiakerak, Enseiukarrean aldizkaria; ale bakarra eman zuen ahozko aldizkari Aurka izenekoa; omenaldiak, esaterako, Gabriel Arestiri egin zitzaiona, eta abar.

Errebindikatzailerekin bi talde bereiz daitezke. Alde batetik, Deustuko Unibertsitate barrura begira egiten zirenak, hala nola, eskolak euskaraz ere emateko kanpainak eta baita Euskal Filologiako lizentziatura ezartzeko ere, besteak beste. Bigarren multzoan, kanporako kanpainak, esaterako, euskararen ofizialtasunaren aldekoa, Euskal Herriko Unibertsitatearen euskal distrituaren eskaera, eta abar.

4.1. Kulturalak

Esan bezala, arlo honetako ekitaldiak asko eta mota desberdinekoak izan ziren. Garrantzitsuenak azalduko ditugu.

a. Irakaskuntza

Kultur esparruko ekintzen artean, arrakastatsua eta jende gehien mugitu zuena irakaskuntzaren atalarekin lotzen da. Aipatu den bezala, lehenengo ikasturteak (1967-68) hasi ziren euskaraz Ikasteko eta Alfabetatzeko eskolak. Ikasle kopuru handienak euskaraz ikastekoak ziren, baina alfabetatzeko apuntatzen zirenak ere ez ziren gutxi izaten. Antolatzaileak oraindik oroitzen dira lehenengo ikasturte hartan izan zituzten irakasleekin: Iñaki Uriarte, azpeitiarra, eta Josu Recalde, bermeotarra. Eskola-ordua, ikasle guztiei ongi zetorkien bat bilatu behar zenez, goizeko zortzietan ezarri zen, bederatzietan libre egon ahal izateko, orduan hasten zirelako fakultateko eskolak. Eskola horiek ordaindu egiten ziren, baina Deustuko Unibertsitateko Hizkuntzen Institutuan beste hizkuntzak ikasteko eskolak baino hagitz merkeagoak izaten ziren¹⁴. Uda hartan bertan, 1968koan, ikastaro trinko bat antolatu zen euskararako. Patxi Altunak berak zuzentzen zituen eskolak eta Jerardo Elorza izan zuen laguntzaile. Ikasteko, hastapen hauetan, batez ere Bizkaiko Aurrezki Kutxak zabalduak Euskarazaleak elkartearen liburuaz baliatu baziren ere, laster joan zen Patxi Altunaren Euskara hire laguna! metodoa zabalduz eta indartuz, horrela, bizkaieraren erakusketa baztertu gabe, euskara batuaren ildotik ere abiatu ziren ikasketak. Ikasleak ziren, bada, eskolak antolatu eta kudeatzen zituztenak, baina ez zuten eurek inolako zertifikatu akademikorik emateko ahalmenik. Hori, aipaturiko Hizkuntzen Institutuak egiten zuen. EKMtik ikasleen zerrenda, azken emaitzekin batera, bidaltzen zen Hizkuntzen Institutura eta honek erregistratu eta agiriak banatzen zizkien ikasleei.

12 "Las comisiones son grupos de alumnos que se reúnen para trabajar en torno al E.K.M. Estas comisiones tienen varias funciones, aparte de las que son propiamente específicas de cada una de ellas: -Promocionar actividades que hasta ahora no se han hecho en el E.K.M. (música, arte, etc.). -Hacer que el E.K.M. se acerque más a los estudiantes y sea más conocido. -Responder a las inquietudes de los estudiantes, que pueden ser satisfechas por medio de actividades que les presentan las comisiones. -Estas comisiones estudian y trabajan cada una en su faceta para promocionar la cultura euskaldún teniendo muy en cuenta la situación en que se encuentra y el marco socio-político en que se inscribe". (Datarik gabeko dokumentua, baina lehenengo urtekoa dela ageri du).

13 "De su labor depende el buen funcionamiento informativo de cara a la Universidad. Están al servicio de las demás comisiones y seminarios pero no por ello se les corta una labor creativa. Hasta ahora ésta comisión se ha dedicado a montar exposiciones informativas, o a editar folletos propiamente de propaganda, pero este año trataremos de realizar proyectos más ambiciosos y por tanto necesitamos más gente. Nuestro más inmediato proyecto es la realización mensual de un mural monográfico. El primero en colaboración con otra comisión será sobre los problemas de barrios". (Aurreko oharrean aipaturiko dokumentutik).

14 Goian esan den bezala, lehenengo ikasturte horretako eskoletarako 25 pezeta ordaintzen zen hilero.

Eskolen antolakuntza seriozki eramaten zenez eta eskolak ere ganora handiarekin eta kalitatez ematen zirenez, euskararen irakaskuntzak gero eta hedadura zabalagoa hartu zuen. Fakultate guztietako ikasleak apuntatzen ziren eta baita Unibertsitateko ikasle ez zirenak ere kanpokoak barne. Esaten denaren erakusgarri bezala, ikus hamar urte geroagoko, 1977-78 ikasturteko, honako datu hauek: Unibertsitateko ikasleak, guztira, 7.937 izan ziren, eta horietatik euskarazko eskolak jarraitu zituztenak: 1.555, 22,37. Egia da ordurako gauzak aldatzen hasiak zirela, eta Unibertsitatean bertan Euskal Filologia 1976an hasia zela, baina, nolaini ere, kopuru nabarmena da hori. Horregatik, hurrengo ikasturtean, 1978-79an, Unibertsitateak bidezkoa eta beharrezkoa ikusi zuen bere gain hartzea antolakuntzaren ardura. EKMkoek ere ongi iritzi zioten erabaki horri, eta horrela sortu zen, EKMri erreleboa hartuz, euskararen irakaskuntzaren erantzukizunean oraindik dirauen Euskal Irakaslegoa.

Irakasleei dagokienez, asko luza daiteke eskolak eman zituztenen izenen zerrenda, guztiena eta ikasturteka biltzea ezinezkoa litzatekeena, bestalde, datu zehatzak falta baitira. Gordetzen diren edo lekukoek gogoratzen dituzten izen horietako hainbeste aski ezagunak dira, eta gehienbat, arlo batean edo bestean, irakaskuntza munduan jarraitu dutenak. Hemen zenbaitenak: Patxi Altuna, Patxi Goenaga, Luzio Agirre, Xabier Altzibar, Andolin Eguzkitza, Xabier Kintana, Xabier Mendiguren, Peio Salaburu.

Alfabetatzea era ezberdinean antolatzen zen. Ondo dokumentatuak 1970etik 1975ra eman zirenak dira, edo, hobeki esateko, eman behar zirenak dokumentatuak baitaude egin ziren publizitateko kartelen bitartez. Izan ere, urtero, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntzaz, kartel berria ateratzen zen 'Alfabetatze Ikastaroa' izenburuarekin. Denetan Mintegiaren logoa ezartzen zuten eta ikastaroari buruzko xehetasunak, zenbaitetan baita prezioa eta irakasleen izenak ere sartzen ziren. Hasieran, lehenengo hiruhilabetekoan egiten ziren –gero bigarrenera ere zabaltzen hasi ziren–, astean bi egun, ilunabarreko azken orduetan. Lehenengo urteetan 300 pezeta kostatzen ziren, baina 1973tik aurrera 500era goratu zuten. Irakasleak: P. Goenaga, L. Agirre, X. Kintana, J. Zearreta, P. Elgezabal, E. Mujika agertzen dira. Azkenik, aipagarria gertatzen da, kartelak ateratzeko, garai hartan indarrean zegoen araura, 'Ministerio de Información y Turismo' ren baimena behar izaten zela¹⁵.

b. Hitzaldiak, mahai-inguruak eta euskal-asteak

Mintegi unibertsitarioa zenez eta euskal kulturari maila unibertsitarioa eman nahi zitzaionez, ekintzarik lagungarriena hitzaldien bidea gertatu zitzaien. Hasieran hitzaldiak izan ziren, eta haien erakarpina ikusirik, mahai-inguruak ere antolatzen zituzten. Horrela, gai izendatu baten inguruan zerbait borobilago egituratua hobe izango zela iritziz, nahikoa arin euskal asteak antolatzerara pasatu ziren, horretan aitzindari eta erreferente izan zirelarik. Esan bezala, gehienetan aste monografikoak izan ziren, baina, beharizanen edo aukeren araura, arlo irekiagoak ere hartzen zituzten, beti ere irakaskuntza mundura bideratuak. Beren helburu zehazetan hori berariaz bilatzen zen, hau da, erakunde ofizialek eskaintzen ez zieten formazioa, hitzaldi-ziklo hauen bidez euskal hizkuntzan, literaturan eta euskal kulturako arlo desberdinetan erdietsi ahal izatea. Maizenik erabili ziren gaiak, hizkuntza eta literaturaz gain, historia, zuzenbidea, forala batez ere, soziologia, etnografia. Askotan ikastaroen formatua ere hartzen zuten.

Mintegia sortu eta hurrengo ikasturtean (1968-69), azarotik apirilera, gai ezberdinez antolatu zen emanaldi bat. Hitzaldi bakoitza entzutera hurbildu zen kopurua, batz bestekoa, 30 bat ikaslekoa izan zen. Honako egitaraua izan zuen: "Dialectos literarios históricos del idioma vasco", X. Quintana. "Pintura vasca", Karmele Rotaetxe. "Arquitectura en el País Vasco", Pedro Basañez. "Música vasca: culta y folclórica", Marisa Ozaita. "Música pop vasca: 1967-69", Isabel Lertxundi. Gonzalo Duok historiaren inguruan emandako: "Prehistoria del País Vasco", "Invasiones de romanos, godos y árabes", "Edad Media. Primeras instituciones", "Edad Moderna. Desarrollo institucional", "Edad Contemporánea. Siglo XVIII", azken hau Manu I. de Aldecoa y Egileor-ek. Azkenik, "Literatura vasca de posguerra"¹⁶.

Udako ikastaroei ospe handiagoa emateko edo ikasturtean zehar ere, izeneko pertsonak ekarriz, hitzaldiak antolatzen zituzten, Eugene Goyenetxe, Eusebio Erkiaga, Juan San Martín, esaterako. Aipatzekoak dira beste kutsu bateko hitzaldiak ere, garai hartako gizartearen egoeraz-eta aritzen zirenak, ez beti denen gustukoak. Hala nola, Gernikako estatu-tuari buruz Xabier Arzalluzek Parainfoan eman zuen lehenengo hitzaldia, oraindik zenbaitetik gogoratzen duen bezala, oso kritikatu izan zena unibertsitateko zenbait sektoretan.

15 Horrela ikusten da kartel batean, zeinetan, Ministeritzako 'Delegación Provincial'ean depositoa egin ondoren, 1974ko urtarrilaren 29an, eman zioten baimena eta zigilua estanpatuak ageri diren.

16 Gai honen emalea ez da ageri, edo nor izan zen oroitzen ez.

Mahai-inguruak aproposak gertatzen ziren gai eztabaidagarrietarako eta baita errebindikazioak mahai gainean ipintzeko ere. Adibide ona da Unibertsitatean euskara izenburuarekin lau hizlarirekin osatu zena: “El euskara: lengua universitaria”, Jose Ramon Etxebarria; “El euskara lengua de museo o lengua de civilización”, Xabier Kintana; “La necesidad de euskara en Deusto”, Gotzon Garate; eta “Datos sociológicos a partir de una encuesta realizada por el E.K.M.”, Iñaki Ruiz de Pinedo.

EKM sendotuz joan zen einean, hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, euskal asteak antolatzen hasi ziren. Ezagutzera emateko kartel ederrak ateratzen zituzten, moldiztegiak eginak eta Bilbo guztian zabaltzen zituztenak. Euskal aste haiek, batez ere gai monografiko baten inguruan antolatzen ziren, esaterako, Euskal Literaturaren astea: prosa izenburupean: Alfontso Irigoien XX. menderartekoaz aritu zen, Xabier Kintana gerraurrekoaz eta gerraondokoaz, Txomin Peillenek Jon Miranderi buruz hitz egin zuen eta Joan Mari Torrealdaiak ‘Gaurko euskal kazetaritza’ hartu zuen mintzagai. 1975ean, Departamento de Estudios Vizcainosekin batera, Euskal Philologiaren lehen astea¹⁷ izenburupean, honako egitaraua izan zuen: Aintzinako kanta zaharren inguruan, Alfonso Irigoien; Euskal tradizio zaharraz, Luis Mitxelena; Etxeberri Sarakoaz, Gabriel Aresti; Sarako eskolaz, Ibon Sarasola; Etxeparez, Jean Haritschelhar; Leizarragaz gogoetak, Piarres Lafitte; Larramendiren eskolaz, Aita Onaindia, eta Añibarroz, Aita Villasante.

Beste arlo batzuk ere erabili ziren saio haietan. Aipatzekoa da Euskal Kultur Mintegiak ‘Facultad de Ciencias Económicas de la Universidad de Deusto’rekin batera antolatu zuen Kooperatibei buruz hitzaldi-saioa¹⁸. Hona egitaraua: Antton Pérez Callejak, “Origen y desarrollo del movimiento cooperativo en Mondragón”; Alfredo Sainzek, “Representatividad interna y su crítica”; Jabier Albisturerek, “Papel del movimiento cooperativo en el futuro de la economía de Euzkadi”; Victor Egusquizak, “Financiación”; eta, ixteko, mahai-ingurua “Crítica global del movimiento cooperativo”az.

Esan bezala, euskal-asteak hamarkada horretan eta hurrengoan, laurogeikoan, antolatu ziren. Arrakasta handia izaten zuten hitzaldiek berez, baina beste ekitaldi batzuekin hornitzen ziren. Adibidez, Zer diozu, Iparralde? izenburuaz antolatutakoa¹⁹. Hasi zen Iparraldeari buruzko dokumentala eta diapositibak eskainiz bi saiotan, bata goizez eta bestea arratsaldean. Ondoren, mahai-ingurua: “Iparraldeko politika eta ekonomia Europar Batasunean” honako ponenteekin: Luberriaga (Goiz Argi-tik), P. Xarriton (EAtik), Jean Iriart (EMAtik), Harlouchet (Euskal Batasunatik). Beste mahai-inguru bat: Euskararen egoera Iparraldean: E. Baxok, “Euskara irakaskuntzan”; J. Haritschelhar, “Frantsesaren eragina”; I. Larrañaga, “Siadeco-ren inkesta”; X. Arbelbide, “Euskara komunikabideetan”. Hirugarren mahai-ingurua, “Euskal Literatura egun” izenez, honako ponenteekin: J. Cazenave, “Pastoralgintza”; Tx. Peillen, “Prosagintza”; M. Pagola eta R. Hiriart, “Olerkigintza”. Eta, amaitzeko, kantaldia, Etxamendi eta Larralde emandakoa. Astea osatzeko Iparraldera bidaiaria antolatu zen eta 49 lagun joan omen ziren.

Hainbestez, ez dago atal hau luzatzen ibili beharrik, ekintza aunitz badiren arren ekar daitezkeenak.

d. Argitalpenak

Hasieratik saiatu ziren material idatziak prestatzen eta, ahal zuten neurrian, argitaratzen ere, ziklostilezko kopietan hobeagorik ezean, eta aleak ere ez ziren asko izaten. Boletinekin hasi ziren batik bat. Boletinak egin eta zabaltzen. Bizikera eta Sua izeneko argitalpenak izan ziren, borondate handiz egindakoak eta garaiko giro politikoaren eraginez, errebindikazio kutsua izaten zuten²⁰. Maila esperimentalak ukituz, ale bakarreko ahozko aldizkaria ere atera zuten, Aurka izenarekin. Goraino betea zegoen Paraninfoan, diapositiben bitartez, Biafra eta Nigeriaren herrien egoeraz antolatua izan zen, bukaeran Euskal Herrikoarekin erkatuz eta, bide batez, hemengo egoera salatuz. Arrakastatsua izan zen, baina, dirudienez, ez zuten bigarren alerik ateratzeko aukerarik izan.

Aipamen berezia behar du Saiaketak aldizkariak. 1977. urtean argitaratu zen, 32 orrialdez osatzen zen aldizkari elebiduna. Aldizkariaren nondik norakoak editorialean azaltzen dira: “Deustuko EKMko aldizkaria kalera irten da. Eskuetan duk. Lehen urratsa da, aldizkari honen bidez ematen hasi garena. Editorial honi tokatzen zaio esatea, zergatik orain eta zertarako aukeratu den Kultur komunitate tresna hau”. Eta jarraitzen du: “Aurreko galderei erantzuteko, zer den esatetik

17 Nabari da hemen A. Irigoienek eskua “Philologia” <ph> grafiaz idaztean. Izan ere, garaiko korrante bat agertzen du, lapurtera klasikoaren ildotik zihoana eta Alfonsok beti jarraitu izan zuena.

18 Egin ziren karteletan ageri denez, Lankide Aurrezki Kutxa-Caja Laboral Popularrak babestua izan zen.

19 1988. urtean, apirilaren 18tik 22ra, Deustuko Paraninfoan ospatu ziren.

20 Bizikera aldizkaria, EKM guztiarena baino, Zutik aldizkariari erantzuten EIAk ateratakoa zela esan daiteke. Euskal kulturari buruzko artikuluz osatzen zela.

hasi beharko. Eskuetan dukan alea, euskal kulturaren kreatibitatea bultzatuko duen EKMko aldizkaria da”. Editorialak lau puntu ditu. Bertan, zein helburu dituen aldizkariak eta zein bide hartuko duten azaltzen da. Nortzuei zuzendua dagoen eta nork parte har dezakeen eta abar. 4. puntuan horrela dio: “Orain hamar urte, euskal unibertsitari eta irakasle talde batek botatako sustraien adarrak dira. Mementu egokia dugu oraingoa, beraien lana eskertzeko, beren zordunak baigara, era batetan”.

Aldizkaria generalista da, orokorra eta eduki anitzekoa esan nahi baita, dibulgazioa eta informazioa ere bilatzen du, eduki arinak eskainiz. Gaiak mota ezberdinetakoak izanik, une hartan gizarteak eskatzen zituen errebindikazioekin batera, Deustuko Unibertsitateko euskararen egoera ere biltzen zuen. Horrela, edukien artean, “Euskararen ofizialkidetasunaren aldeko agiria” hizkuntza bietan ematen da. Dibortzioaren aldeko dokumentua; Euskal Unibertsitateko Barruti bakarraren aldeko errebindikazioa. Horiekin batera, Unibertsitateko euskararen aldeko berriak: “Euskera en Deusto”, “Informe pedagógico y metodológico de los profesores de euskera de la Universidad de Deusto”, eta baita EKMri buruzko informazioa eta osaketa: “Euskal Kultur Mintegia, EKM, es el seminario que trata de canalizar las inquietudes culturales vascas de los universitarios de Deusto”. Hiru puntutan banatzen du informazioa: 1. Helburuak; 2. Konposizioa: “Alumnos de la UD que se desean afiliarse en calidad de socios en grado de participación [...] y de exalumnos en grado de colaboración”. 3. Unibertsitatean zitutzen baliabideak: bulegoa, liburutegia eta irakurtzeko gela, eta egongela. Kolaborazioko artikuluek, olerkiez eta kantez osatzen da. Batzuk izengoitiz sinatuak. Euskaraz zenbait: Bernardo Atxaga, Txantxiku, S. Gorbea; eta ez gutxiago gaztelaniaz ere: Emilio Sagasti (3 artikulua), L. de Linzola. Hurrengo aleetarako kolaborazioa eskatzen dute. Azkenik, harpidetza txartela eransten da, urteko 500 pezetako kuotarekin. Ez dakigu aldizkari honek jarraipenik izan zuen, baina ez dugu beste alerik aurkitu.

Argitalpenen atal honetan, EKMak atera zuen azken aldizkaria delako, besteak beste, ezinbestekoa da Enseiukarrean aipatzea²¹. 1985-86 ikasturtean ikasle talde bat zebilen Mintegiaren inguruan euskal kulturarekiko egonezin biziak eta, mintegiarekin elkarturik, zerbait egiteko irrikaz. Azkenean, ganorako aldizkari bat ateratzea erabaki zuten. Unibertsitatearen babesa ere bazutelarik, Enseiukarrean izenarekin²² plazaratu zen ikasturte hartan bertan²³. Garai hau ez zen EKM sortu zenekoa, gutziz bestelakoa baizik. Ordurako, euskal kultura sartua zegoen irakaskuntza unibertsitarioan eta Euskal Filologiako bosgarren promozioak amaituko zuen lizentzia ikasturte horretan. Bestalde, giro politikoa ere erabat aldatua zegoen. alderdi politikoen eta erakunde publikoen aski normalizatua zuten beren jardura eta ez zegoen ideiak agertzeko eta defendatzeko ezkutuka ibili beharrik. Egoera horrek, beraz, piztu egiten zuen garai horretako gazteen barneko sua, eta euskal kultura, kultura zentzu zehatzean, lantzeko abagune bikaina zen ordukoa.

Giro hartan, bada, atera zen, M. A. Elkoroberezibarren zuzendaritzapean, Enseiukarrean aldizkaria. Ez zen izan gutziz monografikoa, baina batez ere euskal hizkuntzara eta, bereziki, euskal literaturara lotua egin zen, tartean sorkuntza lanak ere bazirelarik. Erredakzio kontseilua, zuzendariak gain, A. Ros, X. Santano, I. Barandiaran, P. Aiartza eta M. Euba ikasleek osatu zen, eta horiek dira lehenengo editoriala idatzi eta sinatu zutenak. Argitaratzen ziren artikulua gehienak ikasleek ziren, baina, tarteka, irakasleek ere agertzen dira, lehenengo aletik hasita G. Garate irakasleak eskua luzatu baitzuen. Beste bi zenbaki atera ondoren, lau urteren buruan, 1990ean, ikasle talde berri bat zegoelarik erredakzio kontseiluan, formatu berria eman zitzaion eta horrela jarraituko zuen beste hiru urtez. Horren ondoren, EKM itzaliz zihoanez, Filosofia eta Letren fakultateko Joan Otaegi irakasleak hartu zuen aldizkariaren zuzendaritza eta, bere ardurapean, irakasleek eta ikasleek arteko kontseilua sortuz, oraingoa bai, euskarari eta euskal literaturari soilik zuzendua eman zitzaion aldizkariari jarraipena²⁴.

e. Kantaldiak

Diktadura garaia izaki, abeslari euskaldunek eta, batez ere, euskaraz abesten zutenek ez zuten batere erraza kontzertuak ematea, beti zentsuraren beldur egon behar baitzuten. Horregatik, kanpoan ezin eman zitezkeelarik, Deustuko Unibertsitatean hainbat kontzertu eman ziren. Unibertsitateak bere ematen zuen babesagatik ezezik, ziurrenez, Deustuko

21 Joan Otaegik egoki batzen du aldizkari honen nondik norakoa: (1995), “Enseiukarrean aldizkaria”, Bat. Soziolinguistika aldizkaria, 15. zkia., 65-68. or.

22 Izen horrek euskarazko literatura klasikoa ekartzen du gogora, Axularrek erabiltzen duen hitzaz baliatzen baitira. Hark bezala, argitaratzen zuten lehenengo lanaren konfidantza faltaz, saiakera moduan edo ateratzen zutela agertu nahi izan zuten.

23 Lehenengo alea 1986. urtean argitaratu zen, berehalaxe bigarrenak ere argia ikusi zuelarik. Aldizkariaren zenbait aleren aurkibidea ikusteko, Euskaldok. Euskal Dokumentazio Zentroaren web orria: <http://euskaldok.deusto.es/default/es/revistas/ver/Enseiukarrean?anyo=1986>.

24 Azken zenbakia 1985-86 ikasturtean argitaratu zen eta, esan bezala, zegoeneko EKM desagertua zegoen.

Unibertsitateak eragiten zuen begiramenagatik izan zitekeela ere esan daiteke, Paraninfoan ematen baitziren. Edonola ere, gazteen artean kontzertuak beti ongi etorriak izaten zirenez, hainbat kontzertu antolatu ziren 70eko hamarkadatik aurrera, zenbaitetan euskal-astei amaiera emateko, baina, gehienbat, aitzakia gutxi behar izaten zen kantaldiak antolatzeko. Bat edo beste gogora ekarriz, esan dezagun Ez dok Amairuko zenbait abeslari, Xabier Lete, esaterako, bertatik pasatu zirela. Oskorri taldea, berria eta ezezaguna zenean, EKMk ekarrita eta haren eskutik Deustuko Unibertsitatean aurkeztu zen 1971ko apirilean; eta hurrengo hilabeteen, EKMak berak Oskorriren taldekideekin egindako elkarrizketa bat Zeruko Argiak argitaratu zuen²⁵. Ruper Ordorikak ere bere lehenengo ekitaldia Deustuko Paraninfoan eman zuen, eta EKMkoek gogoz indar eginez gainera, bera ez baitzen ausartzen. Imanolek ere, 1985ean, bi kontzertu eman zituen, goizez eta arratsaldez, eta horiei buruzko informazioa ondo gordetzen da. Iparraldeko abeslari Etxamendi, Larralde; Arrateko trikitilariak; bertsolariak...

4.2. Beste ekitaldi batzuk

a. Errebindikazioak

Orain arte esan den bezala, mintegia sortu zeneko urteak hagitz asaldatuak izan ziren, gaztediarentzat batez ere, eta mota bateko zein besteko errebindikazioak ez ziren falta izan. Nola politikoak, nola kulturakoak, nola erlijiosoak, eta hala unibertsitatearen baitan nola handik kanpo, orduko giza-giroan denak eskatzen zuen zerbaiten alde ala aurka mugitzea eta parte hartzea. Beraz, EKM bezalako talde batean sartzen zen gaztea berez ageri zen motibatua eta zerbaiten alde zegoela, Euskal Herriaren alde, noski, honen kultura eta hizkuntzaren alde batez ere inplikatzeko, horren dudarik ez dago.

Gorago aipatu diren ekintzak mota ezberdinekoak ziren, interes anitzi erantzunez, baina denak jokabide ortodoxoz bideratuak izan ziren. Horiekin batera, ordea, beste xede batzuekin egindakoak aipatu behar dira baita ere. Bi motatakoak ikus daitezke azken hauetan: i) Deustuko Unibertsitatean sortuak eta bertarako eginak; ii) Helburuz hedadura zabalagoak, Unibertsitatekanpo antolatuei laguntzekoak, nolabait esateko.

i) Deustuko Unibertsitatean sortuak eta bertarako eginak Hauetan euskararen alde egin zirenak lirakeke nabarmenenak. Behin gizartean demokraziaren bidea irekiz zihoanean eta euskara erakundeetan era normalizatu batean sartzen hasi zenean, Deustuko Unibertsitatean euskararen presentzia irakaskuntzan agertzeko aurrena, eta areagotzeko gero, eskariaren bilakabidea luzea izan zen eta egin ziren kanpainak edo sustatu ziren ekintzak, desberdinak. Hitzaldiak, mahai-inguruak, euskal asteak, eskari zuzenak..., denak balio zuen, kontua agertzea eta ez isiltzea zen. Funts handiagoko ekintzetan, nagusia 1975-76. ikasturtean burutu zen, errektoreari zuzendutako eskari formal batekin²⁶. Euskal Kultur Mintegiak Ordezkarien Kontseiluarekin batera, hiru eskari hauek egin zituzten: Elebitasuna maila guztietan ezartzea; euskal kultura instituzionalizatzea; eta, hirugarrena eta azkena, 1976-77 ikasturterako Euskal Filologia saila sortzea. Eskaria sinadura bilketarekin osatu zen; tamalez, ez da gordetzen bilketaren emaitzen daturik, baina ez ziren hain gutxi izango, eskariak eragina izan zuen eta. Izan ere, seinalatutako ikasturte horretan bertan hasi baitzen Euskal Filologiako lizentziatura Deustuko Unibertsitatean. Lehenengoa historian. Gauzak bide horretatik bazetozen, baina bidea urratzen aitzindaria Deustuko Unibertsitatea izan zen eta, agian, beste irakastegi batzuk ere premiatu zituen. Ez da lorpen txikia. Dena den, inizatiba ez zen ikasleena soilik izan, eta lorpena ere ezin zaie eurei bakarrik esleitu, badakigulako ikasketa horiek aurrera aterateko, zenbait jesuita haien atzetik zebilela eta isilean aritu zirela horrek aurrera egin zezan²⁷.

Atal honetan aipa daitezke baita ere 1984-85 ikasturtean hiru egunetan antolatu ziren aktibitateak: "Euskara unibertsitatean" gaiarekin mahai-ingurua, "La muerte de Mikel" zinemaldia eta Imanolen kantaldia. Argitaratu zen programan

25 Zeruko Argia, 430 alea, 1971, 05.30.

26 Orduan erretorea Alberto Dou zen.

27 Patxi Altuna eta Gotzon Garate, Unibertsitateko irakasle jesuitak, izan ziren bultzatzaileak eta horrela hasi ziren Euskal Filologiako ikasketak eta titulu berria Bilboko zein Donostiako campusetan, inolako ofizialtasunik lortu gabe alde aurretik. Ikus, C. Sáez de Santa Marfak nola batzen zuen: "El interés por la Filología Vasca llegó a solicitar su reconocimiento como sub-sección de la Filología Hispánica, pero ante otros criterios de la Administración, el rectorado de Deusto la instituyó como Sección independiente, con título privado, mientras los estamentos oficiales estén en condiciones de reconocerla como tal." Eta jarraitzen zuen: "La cuestión estriba en que no puede ser reconocida, en una Universidad privada, una Sección que no tenga otra de igual denominación en las Universidades del Estado" (1978, 234). Aipaturiko bi jesuita irakasle horien itzal eta laguntza eraginkorrak hortxe zeuden. Ikus, horren adierazpide esanguratsu hau, Gotzon Garatek datarik gabeko gutun batean idatzi zuena: "Euskal Filologiaren ikasleei, Agur: Kurtsoa bukatu hurren dugu. Datorren ikastaroan nahaspilarik izan ez dadin, lehen bait lehen gauzak argitzea komeni da. Dekanuari, Reizabali, -eta hobe Obieta Erretore Ordezkariari- bi gauza galdetu behar diozute: Bata: Ea datorren kurtsoan ere Euskal Filologia goiz-arratsean izango ote den. Bestea: Ea zeozer egin ote den Madrilen karrera hau onartua izan dadin. Nik dakidanez, ez da oraindik ezer egin. Hau oso serioa da."

bertan, 'Manifiesto – Agiria' izenburuz hizkuntza bietan idatzitako adierazpen bat sartu zen, Deustuko Unibertsitateko Erretoreari eta Dekanoei zuzendua. Laburki azalduz, euskara unibertsitatean sar dadin, lau punto errebindikatzen dira: 1) Euskararen Gabinete tekniko aholku-emailea martxan jartzea. 2) Irakasleei begira: hizkuntzaren euskararen ezagutza mailaren arabera irakasleen zentsua egitea; dagoen irakasle goa euskalduntzeko, alfabetatzeko eta irakasgaietan euskararen aldetik trebatzeko erraztasunak eskaintzea; irakasle berriak kontratatuzko, lehendabiziz kontratatuko den irakasle goari euskararen ezagutza eskatzea, gaztelaniarena eskatzen den maila berean. 3) Ikasleei begira: euskararen ezagutza mailaren arabera egindako zentsua finkatzea euskalduntzeko, alfabetatzeko eta gaietan trebatzeko erraztasunak eskaintzea. 4) Eta programei begira: kurtso bakoitzean asignatura bat euskaraz ikasteko aukera eskaini, asignatura berak gaztelaniaz duen ordutegi, irakasle maila eta exigentzia parekoak zainduz²⁸.

Testigantza gehiago badira, euskararen eta eskubideen kontzientzia indartuz joan zen heinean, adierazpenak, salaketak, eskaerak eta abar ere usutzen joan baitziren. Baina egoerak ez ziren lehengoak, eta EKM ere desagertzeaz zegoen ordurako. Beraz, hori beste historia bat da.

ii) Kanpoko mugimenduei eta errebindikazioei laguntza

Lehenbiziko urteetatik hasiak ziren EKMko kideak Unibertsitateatik at egiten ziren aldarrikapenekin bat egiten eta, zenbait aldiz, haietan parte hartzen ere. Euskararen ofizialtasunaren alde kanpainan, adibidez, gogor egin zuten, eta berdin Euskal Herriko Unibertsitatearen alde ere, euskal unibertsitate barrutia errebindikatu.

Oraindik zenbaitek gordetzen ditu EKMren hasierako urteetan salbuespen-egoerako²⁹ urte-sail luze hartan bizi izan zen egoera politikoaren aurka ziklostuz ateratzen zituzten orri eta oktobilak. Unibertsitateak ere horiek urte zalapartatsuak izan zituen³⁰. Gai politikoek eta horiekin lotzen ziren gaiak arrakasta izaten zuten, eta hauteskunde garaietan haien inguruko ekitaldiren bat antolatzen zen, beti Unibertsitatearen borondatearen kontra. Hala, 1980an, komunikabideetan oihartzun handia izan zuen indarkeriari buruzko mahai-inguru bat antolatu zen, alderdi politikoen ordezkariekin³¹. Unibertsitateak, prentsa bulegoaren ohar baten bidez, bere baimenik gabe egin zela agertu zuen, bide batez horrelako gaien buruz hauteskunde ondorengo astean bertan, eta sakontasun handiagoarekin gainera, egiteko prest zegoela argituz. Prentsa-ohar horretatik jarrai daitekeenez, ez zuen EKMk mahaia bere kabuz antolatu, alderdien eskakizunari erantzunez baizik³².

Garai hartako giro nahasitik ez zegoen erabat ihes egiterik, eta are gutxiago 80ko krisialdiko langileen arazo larriari entzungor izaterik. EKM agertzen ez bazen ere bere izenez, hartako kideek begi onez ikusten zuten "Labe Garaietako" langileen borroka, beren enpresaren eta lanpostuaren alde, eta haiek Paraninfoan egin zuten itxialdia ere bai. Beste hainbeste esan daiteke elizbarrutiko apaizei ematen zieten laguntzaz ere, paperak banatzen lagunduz eta abar.

b. Beste erakundeekin harremanak eta barruko beste mugimendu batzuk

Hasieratik agertzen da EKM, arrazoi ezberdinak direlarik tartean, kanpoko erakunde eta taldeekin harremanetan. Ugarienak beste kultur elkarte eta beste unibertsitatekoarekin izan zituenak dira, bai, lehen aipaturiko, distrito

28 Izan ere, eskolak euskaraz ematen, fakultate desberdinetan, 1980an hasi zen Dionisio Aranzadi erretorego garaian. Berak sartu zuen, Euskal Filologiatik at, eman zen lehenengo ikasgaia euskaraz. Zuzenbideko fakultatean izan zen, Zuzenbide Politikoa, hain zuzen. Xabier Arzalluzek hartu zuen Aranzadiren eskariari erantzunez. Bestalde, 86an Euskararen Errektoreordetza sortu zen.

29 Lehenengo salbuespen-egoera ("estado de excepción").

30 J. R. Scheifler aski zehatz islatzen du Deustuko Unibertsitateko urte horietako giroa, ongi azalduz, bestalde, unibertsitatekoak gizarteak bizi zuen egoera politikoaz eta hartan gertatzen ziren istiluez zuen lotura. Adibide baterako, 68-69 ikasturteko hasierari buruz dio: "Estos acontecimientos tienen inmediata repercusión en la Facultad de Teología. Los estudiantes celebran asambleas, se declaran en huelga en protesta contra el gobernador militar, etc. En ocasiones les secundan los alumnos de Derecho y Filosofía y Letras..." (74 or.); edo "Bajo negros nubarrones y los peores auspicios comenzó el curso 1970-71. El nacional e internacionalmente conocido "Proceso de Burgos" ocuparía la atención y alteraría los ánimos dentro y fuera de la Universidad ...". (76 or.). Eta horrela jarraituko du zenbait urtez. José Ramón Scheifler Amézaga, S.J.: "Historia de la Universidad de Deusto", Sspientia Melior Auro (1995:21-91 or.).

31 Parte hartzaileak honak hauek izan ziren: Elixabete Bizkarralagorria (EAI), Txomin Ziluaga (HB), Ramón Zallo (LKI), Rosa Olivares (EMK) eta Mario Onaindia (EE). Gonbidatua zegoen Ricardo Damboreneak (PSE) ez zuen parte hartu. Ikus daitekeenez, ez ziren Alderdi denak ordezkatuak egon.

32 Deustutik egin zen prentsa-oharretik jarrai daiteke: "Finalmente, la Universidad de Deusto lamenta que los representantes de los partidos que han considerado tan urgente el tratamiento del tema de la violencia lo hayan hecho violentando, a su vez, los cauces de intervención en este centro." (Deia, 1980.3.5)

bakarraren aldeko kanpainetan, bai beste unibertsitateko zentrotan sortuko ziren E.K.T. taldeak bideratzen eta ekitaldiak elkarrekin antolatzeke edo, besterik gabe, euren arteko batzarrak egiteko. Baita Udako Euskal Unibertsitatea sortzeko asmoa zegoenean ere dokumentatzen da gutun bat horren alde egiteko gogo agertzen duena. Aipagarriak dira ondorengo zentro hauen izenak, zeinetako euskal mintegiei luzatu zitzairen gonbiteak: Ekonomiketako E.I.T., Peritoak, Komertziokoak, Medikuntzakoak, Magistergokoak (sic) eta Zientzietakoak. Gauza gehiago ere egin ziren, baina leku-kotasun garbirik ez da agertu.

Gorago esan bezala, urte haietan euskal gizartean sortu ziren mugimendu aunitzek Unibertsitatean ere beren isla izan zuten, hala nola, hasieran aipaturiko EGI eta EIAz aparte: Eladioa edo ELA berri, ETA V, LKI/ETA VI, PCE, Partido de los Trabajadores–Joven Guardia Roja, zenbait independente kezkatu, denen artean “Euskal Frente Unibertsitario” bat sortzeko asmoz edo. Edonola ere, ideologia kontuez eta mugimenduez gain, euskararen eta euskal kulturaren alde egiteak lotzen zituen elkarrekin, eta hori tinko eutsiz eta horri esker iraun zuen EKMk aski luze.

EPILOGOA:

Euskal Kultur Mintegiaren historia, ezinbestez, Deustuko Unibertsitateko euskaratze prozesuarekin estuki lotua dago, prozesu luzea eta ez zena zailtasunik gabea izan. Mintegiaren helburu nagusia euskara eta euskal kultura Unibertsitatean sartzeari zela eta horretarako Unibertsitatea zirikatuz eta bultzatuz, EKMren etorkizuna garbia zen sortzaileentzat hura sortu zenetik, hau da, desagertzea behin Unibertsitateak bere gain hartuz gero haren helburutan ikusten ziren eginkizunak. Eta horrela gertatu zen. Bestalde, gizarte eta politika egoerak aldatuz joan ziren heinean, EKMren gainerako zeregina ere murriztuz joan zen. Horrenbestez, 1980ko hamarkadan, emeki emeki, Unibertsitatearen erakunde eta aktibitateetan urtuz, itzaliz, joan zen. Baina ez dago zertan tristatu, alderantziz baizik. Egiteko polit eta garrantzitsua bete zuen EKMk euskararen alde denbora idor haietan, eta ongi da hartaz ez gaitzela ahaztu eta ekintza horren protagonistei ere eman diezaiegula zor zaien ohorea.

Sortzaileak ez ezik, gero pasatu ziren hainbeste ikasle ere harro egon behar dira hark eman dituen fruituekin. Ez dago berriro horiek aipatzen ihardun beharrik, ezta laburbiltzeko ere. Baina, horien denen gainetik, nire ustez, meritu handi bat du, EKMko partaide guztiei eskertu beharrekoa: ikasleek sortu eta eurek zeramatzen mintegi bati hainbeste urtetan eustea. Horrelako inizatibek, batez ere ikasleen eskutik sortuak, lehen beroaldia igaro ondoren, eta kideak aldiro aldatu egiten direnez, iraupen laburra izaten dute. Baina Euskal Kultur Mintegitik pasatu ziren ikasle-taldeek eutsi egin zioten, eta hogeituz, promozioz promozio, jarraipena eman zioten entusiasmoz. Halere, arduradunak aldatu egiten zirenez, erantzunak ere ez zikren beti berdina izaten. Ikasturte batzuek distiratsua goak, mugituak izan ziren, ilusioz betetako ikasleek antolatu eta eragindakoak, bizitasunez beteriko ekintzak. Beste batzuek, berriz, hitsagoak, ilaunagoak, baina hori bizitzaren legea da eta ez dio inolako argitasunik kentzen osoki ikusita eman zaion begiradari.

Eta hemen eman den hurbilpena ez litzateke zuzena, ez bagenu, inolako lainorik gabe, garbi agertuko EKMri, hasi zenetik bertatik, ez zitzaioala faltatu Unibertsitatearen babesa, ez bakarrik jesuita irakasleak laguntzaile izan zituelako, horien atzetik Unibertsitateko erretorea jakinaren gainean egoten zelako eta, jesuiten zuhurtasunez, isilpean, laguntza materialez gain, bere ONGIa ematen ziolako EKMri, eta bultzatu ere bai horren beharrik izaten zenean. Denei, bada, adierazi behar zaie euskararen eta euskal kulturaren izenean eskerririk zintzoena.